

Euskarazko albiste-plataforma digital bat sortu euskal Pirinioetan: egoera, kezka eta aukerak

Eneko Bidegain, Aitor Zuberogoitia, Txema Egaña
Mondragon Unibertsitateko irakasleak eta Hezikom ikerketa-taldeko kideak

Euskarazko zortzi tokiko komunikabide badaude euskal Pirinioen eremuan (Nafarroa iparraldea eta Nafarroa Beherea eta Zuberoa hegoaldea). Mahai gainean jarri da zortzien edukien agregatzaile izango litzatekeen plataforma digital bat sortzeko proposamena. Ikerketa honetan aztertu nahi izan da zein litzatekeen komunikabide bakoitzaren jarrera horrelako ideia bati begira. Horretarako, sakoneko elkarrizketak egin dira komunikabide bakoitzeko arduradunekin eta eztabaida-talde bat komunikabide bakoitzeko langileak elkartuz. Halaber, Euskal Herrian garatu diren antzeko beste kasuen azterketa egin da. Agertu den kezka nagusia da, ekonomikoaz gain, horrelako proiektu batek lan-karga handiagoa eskatuko duela, eta oraingo egoeran ez daukatela baliabiderik horretarako. Ez daukate denek iritzi bera partekatu beharreko edukiei buruz, ez eta eremu geografikoaren naturaltasunari buruz ere. Haatik, lurraldea kohesionatzeko tresna eraginkorra izango litzatekeela uste dute, eta euskarari mesede egingo liokeela.

GAKO-HITZAK: Tokiko komunikabideak · Euskal prentsa · Tokikom · Pirinioak.

Creating a digital platform in the Basque Pyrenees: situation, concerns and opportunities

This paper describes local media in the Basque language in the area of the Basque Pyrenees (northern Navarre, Basse Navarre and southern Soule) and the options for creating a digital platform that would work as a content aggregator. The research has been focused on the attitude of each local media towards this hypothetical platform. In-depth interviews have been conducted with each media group director and a focus group with professionals from all the media involved. In addition, a case study of similar digital platforms in the Basque Country has been undertaken. The main concern of the people involved is, apart from economic issues, that the project would increase their workload which is already stretched. Different opinions have emerged regarding the content to be shared and along what lines to designate geographical boundaries. However, the project is considered to be worthwhile as a means of bringing cohesion to the area in support of the Basque language.

KEY WORDS: Local media · Basque press · Tokikom · Pyrenees.

Jasotze data: 2015-02-11 *Onartze data:* 2015-04-20

Sarrera

Euskarazko tokiko komunikabideak aipatzean, gehienetan Gipuzkoako eta Bizkaiko aldizkarietan jartzen da arreta, kantitatez han direlako gehienak, eta han dauzkatelako irakurle gehienak. Bizkitartean, ezin baztertuzkoak dira Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa iparraldeko tokiko komunikabideak, Euskal Herriko zaharrenak direlako eta eragin handikoak direlako, beren eskualdean. Ikerketa honen helburua da euskal Pirinioetako euskarazko komunikabideen egoera aztertzea, ikusteko zein iritzi eta jarrera daukaten eremu horretarako balizko plataforma digital bat sortzeari begira. Tokikom elkarteak aztertu nahi du Nafarroa Beherea, Zuberoa, Bidasoa-Baztan, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari eskualdeetarako agerkari digital bat sortzeko aukera, Bilbo Handian uriola.eus, Tolosaldean ataria.info, Debagoienan goiena.eus, Durangaldean anboto.org eta Sakanan guaixe.eus garatu diren bezala.


Eremu horretan halako plataforma bat sortzeko ideia zabaldu du Tokikom elkarteak, Udalbiltzaren Garapen eta Kohesio Funtsak bultzatutako «Euskal Pirinioetan lan eta bizi» ekimenari erantzunez. Halako plataforma komunikatibo batek euskal Pirinioak kohesionatzeko balio izan lezakeela pentsatuz abiatu da ideia, jakinez azken 30 urteetan euskarazko komunikabideak badaudela eremu horietan, baina bakoitza bere eskualdera mugatuta. Plataforma hori, hasiera batean gutxienez, eduki-agregatzailea izango litzateke: eremu horretan dauden euskarazko komunikabideek sortzen dituzten edukiak bilduko lituzke, eta «Komunitatea» sare soziala aktibatuko luke.

Aipatzen den eremua eskualde hauek osatzen dute, Gaindegiaeren txostenak finkatu duenaren arabera (Gaindegia, 2013): Nafarroa Behereko Garazi, Baigorri, Oztibarre eta Arbela eskualdeak, Zuberoako Basabürüa eta Arbaila eskualdeak, eta Nafarroako Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar eta Baztan eskualdeak.

Halako plataforma bat sortzekotan, sortuko litzateke eremu horretako euskarazko tokiko komunikabideen artean, hala nola: Irati Irratia (Aezkoa eta Erroibar), Xorroxin Irratia (Baztan), Xaloea Telebista (Baztan), *Tipi-Ttapa* aldizkaria (Baztan, Bortziriak, Xareta), Irulegiko Irratia (Nafarroa Beherea), Xiberoko Botza (Zuberoa), *Herria* (Ipar Euskal Herria) eta Kanaldude (Ipar Euskal Herria).

Xaloea, Xorroxin eta Irati Pirinioetako eremuan kokatuta daude, garbi. Irulegiko Irratia eremu zabalago batera ere heltzen da, hala nola Amikuze eskualdera, baina bereziki Garazi eta Baigorri eskualdeetan entzuten da gehien. Xiberoko Botzaren egoera desberdina da: Mauletik emititzen du eta Pettarra eskualdean dauka presentzia handiena, eskualde hura baita Zuberoako jendetsuena; baina Zuberoa osoa hartzen duenez, eta Zuberoak Pirinioetan toki funtsezkoa duenez, irrati hori kontuan hartzea ere ezinbestekoa da. Kanaldude telebistaren sorlekua Pirinioetan da, Alduden, eta gaur egun Arrosatik lan egiten dute. Pirinioetatik harago ari bada ere lanean, Garazi-Baigorri eskualdeko funtsezko hedabide bat da. Azkenik, *Tipi-Ttapa* aldizkaria ere kontuan hartu da —nahiz eta Bortziriak eskualdea ez den Pirinioen mapa horretan kokatzen— Baztanen ere zabaltzen delako, eta eremua pixka bat zabalago hartuta, eremu horretako komunikabide nagusietarik bat delako.

PIRINIOALDEKO UDALERRIAK



Irudia. Udalbiltzak finkatutako euskal Pirinioen eremua. Iturria: Udalbiltza.

Erronkari eta Zaraitzu eskualdeetan badago *Mendixut* hilabetekaria, Aezkoan eta Errobarren ere zabaltzen dutena. Aldizkaria elebiduna da, ordea, nagusiki gaztelaniaz egiten dena. Webgunea osoki bi hizkuntzetan daukate, baina hilabetean behin bospasei albiste berri sartzerara mugatzen da. *Mendixut* ez dago saretuta Tokikom-en. Aldizkari hori kontuan hartu gabe, Pirinioetako euskal aldizkariak ia Pirinio guztietara heltzen dira, Zaraitzu eta Erronkarira salbu.

Ikerketa honek argitu nahi du zein aukera dagoen denen arteko plataforma digital bat sortzeko, aztertuz zein den eremu horretako euskarazko komunikabideen egoera, zein iritzi daukaten horrelako proiektu bati begira, zein arazo ikusten dioten, zein itxaropen sortzen zaien eta nola parte hartuko luketen. Horretarako ikerketa kualitatiboa egin da, elkarrizketa sakonen eta eztabaida-talde bidez. Halaber, aztertu nahi izan da beste kasuak nola bideratu diren, kasu-azterketa horren bidez ere erantzun batzuk emateko Pirinioetako aukerak sortzen dituen galderei.

Aurrekariak

Tokiko komunikabideei buruzko ikerketak

Tokiko komunikabideei buruzko ikerketen alorra zabaltzen ari da pixkanaka. Andaluziako tokiko irratiei buruzko ikerketa-sail bat darama Malagako Unibertsitateak. Irrati horien errentagarritasun soziala neurtzeko tresna bat prestatu dute eta irrati horien mapa osatu dute (Gabilondo, 2014). Horren ondorioak dira tokiko irrati

publikoek gizartearen parte-hartzea sustatzen dutela, orotara 1.500 parte-hartzaile baino gehiagoko sarea daukatelako Andaluziako irrati txiki horiek.

Eskualde-prentsak ehun sozialari eusten parte hartzen duela dio Ballarini-k (2012), informazio zehatza eta praktikoa eskaintzen duelako. Ikerketa guztiak ez datoz bat, ordea, tokiko prentsaren eta komunitatearekiko atxikimenduaren arteko lotura baieztatzeko orduan. Hoffman eta Eveland-ek (2010) diote ezin dutela frogatu halako loturarik dagoenik, komunitatearekiko lotura errotuta eta tokiko prentsa aspaldikoa den kasuetan. Haien ikerketak, dena den, komunitatea definitzeko lan bat egin du. Hainbat irizpide proposatzen dute komunitatea zehazteko. Hurbiltasun fisikoa da irizpideetarik bat; ez dute aipatzen, ordea, hizkuntzaren aldagaia, Euskal Herrian badagoena. Haatik, beren komunitatearekiko atxikimendua, tokiko gaiekiko inplikazioa edota komunitatearekiko identifikazioa aipatu dituzte irizpide gisa (Hoffman eta Eveland, 2010): hor badago hurbilpen bat Euskal Herriko komunitateekin.

Saretzeari begira, zenbait lan egin dituzte Katalunian. Argitalpen hiperlokalak zinez txikiak dira egunkari handien ondoan, eta batuta lan egingen zuten erredakzio integratuak sortzen hasi ziren (Masip Masip *et al.*, 2011). Erakutsi dute halako elkarretaratzeek eta multimedia kazetaritza egin beharrak sor ditzaketan uzurtasunen gainetik, gaur egungo egoerara egokitzeko egin beharreko urratsak direla, eta tokiko komunikabideek gehiago daukatela irabazteko galtzeko baino.

Tokiko komunikabideen eskaintza informatiboaren kalitateaz aritu dira hainbat lan (DiStaso, 2012; Gurun eta Butler, 2012; Olsson eta Jacobsson, 2006; Rennhoff eta Wilbur, 2012), eta badago Kataluniako tokiko irratietako langileen egoerari buruzko ikerketa bat ere (Solà Saña, 2012).

Tokiko telebista parte-hartzaileei buruzko txosten batek (Alix, Gros, eta Pierrot, 2008) dio telebista horiek tokiko gaiak aukeratzen dituztela, eta denborarekin tokiko memoriaren artxibo-lan ezinbestekoa egiten dutela; halaber, tokiko telebisten artean dauden trukeak ere ondorioztatu dituzte. Hurbileko telebista izanik, herritarrak dinamikaren parte sentitzen direla dio txosten horrek. Txosten horren ondorio nagusiak dira, telebista parte-hartzaile baten irizpideak direla: lurraldean errotua izatea, demokrazia parte-hartzailean oinarritua izatea, ildo editorial bateratu bat edukitzea, soldatapekoak eta boluntarioak elkartzea, finantzaketa publiko eta pribatuekin funtzionatzea eta irudiaren irakurketa kritikorako hezkuntza egitea. Serpereau-ren ustez (2006), tokiko telebista parte-hartzaileak ez dira telebista-kate tradizionalak bezala goitik beherakoak, eta «hedabide alternatibo»tzat har daitezke.

Euskal Herriari dagokionez, aipatu behar dira Aiestaranen lanak Debarrenen tokiko hedabideei buruz (Aiestaran, 2007, 2011), edo Goierna hedabideari buruzko beste lan bat (Arana eta Zuberogoitia, 2012). González Gorosarrik tokiko hedabideen kalitatea ikertu du (González Gorosarri, 2006) baita *Berria* eta Euskadi Irratiarena ere (González Gorosarri, 2011). Euskarazko tokiko komunikabideei buruzko lan berrienak (Bidegain, Zuberogoitia, Egaña, 2014) agerian utzi zuen euskarazko tokiko komunikabideek eremu euskaldun osoa hartzen dutela, eta denen artean ekoizpen handia daukatela (egunean 70 orrialdeko egunkaria agertzeko adina).

Pirinioei buruzko ikerketak

Pirinioei buruzko ikerlan berriena Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte-garapenerako behategiarena da (Gaindegia, 2013). Gainerakoak zaharragoak dira; mendiaren bi aldeetako eskualdeen arteko harremani buruzko lanak dira: Aezkoa eta Garazi eskualdeetako bazka-eremuei buruzkoak (Amorena, 1989), Baztan eta Baigorri eskualdeetako mendiaren eta nortasunaren arteko harremani buruzkoak (Perales Díaz, 1997; Zudaire, 1993) edota Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoa aldeko naturari eta mendiaren garapenari buruzkoak (Sanz Tolosana, 2009). Pirinioei buruzko lan gehienak Erronkari eskualdeari buruzkoak dira (Gorría, 2011; Idoate, 1968; Iturri, 1995; *La mancomunidad del Valle del Roncal*, 1989; López-Mugartza Iriarte, 2008; Rucabado, 1999). Gainerako eskualdeei buruzko lanak urriagoak dira, Baztango ekonomiari buruzko lan bat kenduta (Arizkun, 1992).

Ikerketa-galderak eta metodologia

Ikerketa-galderak

Ikerketa-lan hau honako ikerketa-galdera hauen inguruan egituratu da:

1. Ikerketa-galdera: Zein da Pirinioetako euskal komunikabideen jarrera (parte hartzeko aukera eta baliabideak, dauzkaten kezka eta itxaropenak, proiektuari buruzko iritzia) balizko komunikabide digital batu bat sortzeko?

2. Ikerketa-galdera: Zertan lagun dezake horrelako plataforma batek Pirinioetako euskal komunitatean ehun soziala sortzen eta garatzen eta lurraldea kohesionatzen?

Metodologia

Ikerketa-galdera horiei erantzuteko aukeratutako metodologia nagusiak elkarrizketa sakonen eta focus group-aren metodologia izan dira, Juaristik emaniko argibideei jarraiki (Juaristi, 2003).

• Sakoneko elkarrizketak

Erabaki da sakoneko elkarrizketak egitea Pirinioetako eremuan dauden euskarazko tokiko komunikabide guztietako arduradunei: Joxema Irigoien (*Ttipi-Ttapa*), Peio Jorajuria (*Herria*), Pantxika Arranbide (Irulegiko Irratia), Ximun Carrere (Kanaldude), Josetxo Apezetxea (Xorroxin Irratia), Joseba Igerabide (Xaloea Telebista), Arkaitz Almorza (Iratia Irratia) eta Artzen Letona eta Allande Errezarret (Xiberoko Botza). Komunikabideek agerkari digital baten sorreraz eta hartan parte hartzeaz luketen iritzia ezagutzea da sakoneko elkarrizketaren helburua. Sakoneko elkarrizketaren metodologia (Simons, 2011; Vilches Río, 2011) erabiltzea erabaki da, komunikabide bakoitzaren egoera eta pentsamendua ezagutzeko metodologia egokiena dela ondorioztatuta.

Sakoneko elkarrizketa horiek 2014ko maiatzean egindakoak dira. Elkarrizketa horiek prestatzeko, lehenik, Tokikom elkarteak antolatutako aurre bilera batzuetan parte hartu zen. Bilerak egin zen Oronoz-Mugairin 2014ko martxoaren 13an, *Ttipi-*

Ttapa, Xorroxin Irratia eta Xaloa Telebistako ordezkariekin, Pirinioetako agerkari digital baten aukera aipatzeko. 2014ko martxoaren 25ean beste bilera bat egin zen; komunikabide haietako ordezkarietz gain, Irulegiko Irratiko eta Kanaldudeko ordezkariak ere izan ziren. Hirugarren bilera bat egin zen Atarrabian, 2014ko martxoaren 27an, Iruñerriko agerkari digital baten aukera aipatzeko. Han bildu ziren Euskalerrria Irratiko eta Xaloa Telebistako ordezkariak eta eskualdeko beste hainbat kazetari edo kazetari ohi.

Bilera horietan kezka nagusi bat agertu da: ekonomikoa. Nafarroako euskarazko tokiko komunikabideen egoera ekonomikoa guztiz larria dela azaldu dute denek, eta Lan Erregulazio Espedienteak dauzkaten garaian, edozein proiektu berrik beldurra sortzen die ilusioa baino gehiago. Batzuek arazo larritik ateratzeko aukera gisa ikusten badute ere, askoren kezka da ea plataforma berri bat sortzeak ez ote duen lan-karga handituko, diru-iturri berririk ekarri gabe. Garbi gelditu da, ikertzerakoan, lan-zamaren eta egoera ekonomikoaren gaineko kezka oso kontuan hartu behar dela.

Bilera horiek beharrezkoak izan dira elkarrizketa sakonak diseinatu ahal izateko, eta hiru ardatz funtsezko detektatu dira: egoera ekonomikoa eta lan-zama; markaren gaia eta bakoitzak marka horri ekarri diezaiokena; komunikabide horien ekarpen soziala.

Galdetegiak eta elkarrizketa sakonak egin aurretik, prestatutako diseinua erakutsi zaie Hezikom ikerketa-taldeko kideei, Tokikom elkarteko lehendakariari eta lehendakari ohiari eta Topaguneko bi teknikariri. Haien oharrak kontuan hartuta egokitu da galdetegia, eta ondoren egin dira elkarrizketak. Galdetegiko galderak irekiak izan dira, helburua komunikabide horien egoera, kezkak eta itxaropenak ezagutzea zelako.

• Eztatbaida-taldea

Komunikabide horietako arduradunekin biltzeaz gain, langileekin ere bildu nahi izan da ikerketa-galdera berei erantzuteko. Jakin nahi izan da langileek ere zein iritzi daukaten. Baina bakarkako elkarrizketak egin beharrean, erabaki da komunikabide horietako langileak elkartzera mahai beraren inguruan eta focus group-aren metodologia (Murillo Mena, 2006; Valles, 1997; Vilches Río, 2011) erabiltzea haien iritziak eta bizipenak jasotzeko, lanean nola sentitzen diren jakiteko eta haien arteko harremana nolakoa den neurtzeko.

Aipatutako autore horien gomendioei jarraiki, genero eta adin desberdineko langileak hartu dira, komunikabide horietakoak. *Ttipi-Ttapa*, Kanaldude, Irulegiko Irratia, Xorroxin Irratia eta Xaloa Telebistako langile bana hautatu da, horiek direlako eskualde horretako komunikabide nagusiak; besteen langile kopurua txikiegia zen, sakoneko elkarrizketaz gain beste bat egiteko. Eztatbaida-taldea Lesakan bildu zen, *Ttipi-Ttapa*-ren egoitzako bilera-gelan, 2014ko ekainaren 23an. Hasierako galdera baten inguruan eman zitzaizen hitza, eta hortik sortzen zen elkarrizketa grabatu zen. «Nola sentitzen zarete zuen lanean, eta zein aukera ikusten duzue elkarlanerako? Denek batera plataforma digital bat sortzeko eta zuek sortzen dituzuen edukiak horra igotzeko?».

• Kasu-azterketak

Azkenik, Pirinioetarako ideia hori beste eskualde batzuetan ere sortu dutela ikusiz, kasu-azterketa egin nahi izan da azken hilabeteetan garatutako esperientziak hobeki ezagutzeko. Horretarako bi lan egin dira: sakoneko elkarrizketak, Simons-en aholkuei jarraiki (2011), komunikabide horietako arduradunekin; eta komunikabide horietako plataforma digitalaren edukien azterketa kualitatiboa.

Sakoneko elkarrizketak egin zaizkie Goiena, Tolosaldeko Ataria, Uriola.eus eta Guaixe-ko arduradunei: hurrenez hurren, Eneko Azkarate, Ainhoa Oiartzabal, Ninbe Moreno eta Lur Mallea, eta Ainhoa Urretagoienari.

Komunikabide horietako webguneetako ekoizpena ere aztertu da, jakiteko egunean zenbat albiste berri sortzen duten, zein den komunitatearen parte-hartzea sortze horretan, eta zein den multimedia osagaien lekua. 2013ko urriaren 1a eta 2014ko apirilaren 30a bitarteko artikulua zenbatu dira webgune horietako informatika arduradunek produkzioari buruzko datu-basera duten sarbideaz baliaturik.

Emaizak

Aztertutako eremu horrek Nafarroako, Nafarroa Behereko eta Zuberoako mendialdeko herriak hartzen ditu, orotara 103 udalerrri: Baztan, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari eskualdeak Nafarroan; Baigorri, Garazi eta Oztibarre eskualdeak eta Arbelaren zati bat Nafarroa Beherean eta Basabürüa eta Arbaila Zuberoan. Ia herri guztiek (99) izan dute populazio-galera, eta zahartze-indizea 170,67koa da (Euskal Herrikoa 138,11koa da). Eremu horretan 36.918 biztanle bizi dira, eta dentsitatea 10,9koa da (Euskal Herrikoa 149koa da). Zerbitzuen eskuragarritasuna urria dela dio Gaindegiaren txostenak (2013).

Nekazaritza eta basogintzaren sektorea da sektore ekonomiko indartsuena, baita ostalaritza eta turismoaren sektorea ere; haatik, beste sektoreetan lana aurkitzea oso zaila da. Nahiz eta zerbitzuen sektoreak aktibitatearen ia erdia betetzen duen Pirinioetan, Euskal Herrikoarekin konparatuz, apalagoa da. Industria ere apalagoa da, batez beste, Pirinioetan. Enpresei dagokienez, ia denak, hala nola enpresen % 93, zero eta bederatzi langile bitartekoak dira. Ez dago, aldiz, ehun langiletik gorako enpresarik. Nahiz eta langabezia-tasa batez bestekoaren azpitik egon, Gaindegiak (2013) ohartarazten du hori lan-merkatuaren eskasiaren (eta gazteek horregatik herria uztearen) ondorio dela.

Erronkari-Zaraitzu eskualdea da euskaldun gutxien daukana, biztanleriaren % 8,62 baizik ez baita euskalduna. Hala ere, eskualde gehienetan euskaldunen kopurua % 70 ingurukoa da. Pirinioetako gune euskaldunenak dira biztanle gehien dituztenak, hala nola Baztan eta Garazi eskualdeak hurrenez hurren. Orotara, eskualde osoa hartuta¹, biztanleen % 53 da euskalduna, hots, 43.986 biztanletik 23.390.

1. Añamendi eskualdeko herri guztiak ez dira sartzen Udalbiltzaren euskal Pirinioen mapan.

Indarrean dauden plataformen kasu-azterketak

Azken hilabeteetan zenbait plataforma digital sortu dira Euskal Herrian. Horietatik lau kasu (Goiena, Uriola, Ataria eta Guaixe) aztertu dira xehekiago. Lau plataformaren azterketa egin da. Batez beste, egunean zenbat albiste sortzen duten eta nork ekoizten dituen jakitea izan da neurketaren helburua. Webgune bakoitza Codesyntax enpresak sortutako plataforma batean dago, eta beraz, Codesyntax enpresakoen bidez edo webgunea kudeatzen duen informatikariaren bidez lortu da batez besteko ekoizpenak zein diren jakitea (2013ko urritik 2014ko apirila bitartekoa).

Komunikabidea	Kazetarien ekarpenak	Komunitatearen ekarpenak
Goiena	85	15
Tolosaldeko Ataria	7-8	1
Guaixe	9-10	1
Uriola.eus	12	8

Irudia. Plataforma digitaletan egunean argitaratzen den albiste kopurua.

Iturria: lanketa propioa.

Hasieran izan dituzten zailtasunak eta kezkak

Lan-karga

Plataforma digitala sortzeko edo garatzerakoan, hasi baino lehenagoko kezkek jaso dira atal honetan. Guaixe-ri dagokionez, webgunea garatzeak berak ez zion kezka teknikorik eragin, Codesyntax enpresak garatuta zeukalako motor nagusia, Tokikom-etik etorritako proposamenetik abiatuta. Zeukaten kezka «lan-karga handiagoa» izatearena zen: «Ikusten genuen behar hori bazegoela. Kezka nagusia zen nola egokitu beharko genuen, zer suposatuko zuen gure lan-antolaketan, gure egunerokoan», dio Ainhoa Urretagoiena zuzendariak.

Lan-taldearen lanari dagokionez, webgune zaharretik berrira aldatzeak «barnera begira ekarri duen aldaketa» izan da nabarmenena: orain, «langile guztiak sartzen» dira atarian, eta denek egin dezakete albistearen beren kabuz. «Kazetariarentzat, orain maiztasuna aldatu da, eta modua». Aldaketa horrek lan-dedikazio handiagoa eskatzen duela aitortu du: «Gehienbat lehenengo asteetan; gero, ikasten duzunean, errazagoa da». Zenbait hilabeteren buruan, «lan-karga gutxitzen doala» argitu du.

Goiena-ko kazetarien artean izan zen «erresistentzia» bat multimediarako jauzia egiterakoan, Eneko Azkarateren arabera. Denborarekin, erresistentzia horiek gaintu direla dio: «Gaur egun dena modu natural batean egiten da; eta ez orain bakarrik, urte batzuk daramatzagu horrela». Erresistentzia horiek gaintu dituzte ikastaroak antolatuz.

Bilboko Uriola plataforma sortzerakoan, komunikabideek onartu dute parte hartzea, bermatu zaielako ez ziela lan-karga handiagorik eskatuko. Lur Malleak argi dauka, dena den, hastapenean lan-karga bat eskatu duela proiektuak, ikasi behar delako eta jendeari azaldu behar zaielako. Baina, halaber, hiru urte barru lana kenduko duela ere espero du. Tolosaldeko Ataria sortu zutenean, hasieran «estu» ibili zirela aitortu du Ainhoa Oiartzabalek, baina «poliki-poliki» erritmoa hartzen ari direla dio.

Kezka ekonomikoak eta diru-iturriak

Webgune berrituak diru-iturriak ala gastuak eraginen lituzkeen galdetu zaie webguneetako arduradunei. Plataforma sortu berrien kasuan, oraino goizegi zen ondorio ekonomikoez mintzatzeko. Oraingoan, Guaixe-ri diru gutxi sartu zaio publizitateari, baina espero dute webgunea «eskaparate» izan daitekeela, jarraitzaileei begira edota diru-iturri berriak bilatzeko (gida komertziala egin nahi dute). Halaber, diru-laguntza berriak etorri zaizkie Eusko Jaurlaritzatik eta Cedernatik, webgune hori garatzeagatik. Horrez gain, urtez urte IKT laguntzetan ere badituzte aukera askoz ere gehiago, Ainhoa Urretagoienak dioenez. Uriola plataforma sortzeko diru-laguntza berriak jaso dituzte Bizkaiko Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik. Bilboko Udalak publizitate instituzionala hitz eman die.

Goiena-ren kasuan, Debagoieneko komunikabideen bateratzea duela ia hamabost urte gertatu zen, eta hasieran diru-iturriak galtzeko beldurra izan bazezaketen ere, publizitatearen fakturazioa handitu da Goiena sortu zenetik. «*Berrigara*-n edo *Arrasate press*-en, El Corte Inglés edo Carrefour batek publizitatea egitea, edo Iberdrola batek, pentsaezina zen. Hori ekarri du denak elkarrekin proiektu sendoagoa eta tirada edota zabalkunde handiagoa daukan euskarri bat edukitzeak. Era berean ez da herriko komertzio txikiaren iragarkia galdu, baina hoberako izan da».

Jendearen erantzuna eta komunitatea

Sakanako jendeak baikorki hartu du Guaixe-ren plataforma digital berria, Ainhoa Urretagoienaren arabera: «Geroz eta informazio gehiago izan eta jario handiagoa izan, jendeak gehiago bisitatzen gaitu». Jendeak Uriola proiektuari eman dion erantzunaz ere pozik daude Lur Mallea eta Ninbe Moreno: «Jendeak oso beharrezkoa ikusten du, oso ondo hartu du, gure akats guztiekin». Tolosaldean ere baikorki hartu dute aldaketa, Ainhoa Oizartabalen ustez: «Jendearen aldetik ikusi dugu esfortzua eta aldaketa ikusi dutela eta onerako sentitzen dutela. Badutela beraiek ere gogo gehiago beraien lana egiteko eta gurekin kontatzeko. Batzuetan ere balio izan digu, euskalgintza eta kulturagintza mundu bi horiek lotzeko eta harreman gehiago egiteko». Herri txikiekin harreman gehiago lantzeko beharra sumatu dute.

Plataforma digital horien berezitasunetariko bat da komunitateak parte hartzeko aukera daukala, horretarako prestatu duten sail baten bitartez. Guaixe-ren aldetik, alde batetik, astekariko kolaboratzaileak komunitatean sartu dituzte. «Horrek elikatzen du pixka bat komunitatea», dio Ainhoa Urretagoienak. Gainerako jendearen parte-hartzea lortzeko, herri batetik bestera egoera desberdina dela aitortu du. «Hasieran egin genituen aurkezpen batzuk herrietan, herriko kultur eta bestelako taldeekin, zuzenean hitz egiteko eta animatzeko komunitateko kide egitera. Behin kide direla, batzuk ari dira igotzen gauzak, baina ez dauka oraindik nahi genukeen indarra», azpimarratu du. Horren arrazoia izan daiteke jendeak ez daukala «ohitura» eta «igual beste sare sozialetara errazago igotzen» dituztela edukiak.

Komunitatea aktibatzea kostatzen ari zaio Uriola.info-ri. Bilbo Handiko plataformaren kezka nagusia da jendea «nola animatu parte hartzera eta hau guztia nola antolatu», Lur Mallearen arabera. «Kontua da, ez dela bakarrik jendea nola

animatu behar den; baizik eta jendea ez dagoela ohituta», gehitu du Ninbe Morenok. «Jendeak baietz esaten dizu eta animatuko dela, baina ondoren jende askori nagia sartzen zaio. Badakigu, jendeari egutegi eta konpromiso data zehatz bat ipini ezean, jendea oso lanpetuta dabilela, eta orduan eskatu behar zaiela; batez ere, hasieran. Denon naturaltasunera iritsiko den zerbait sortu behar dugu, bai, jendea iritsiko da bere borondatez ematera. Baina hori beranduago izango da, hasiera batean ziurtatu behar dugu informazio-jarioa eta parte-hartzea. Orduan konturatu gara, jendea falta zaigula eta kolaboratzaile horiek iritsi dira baina asko eta asko zirikatu ditugulako».

Goiena komunikabide handiagoa da, langile-talde handiagoa dauka, eta lagun bat aritu zen lanean 2013ko irailetik, komunitate-proiektua sortzeko, eta herriz herri aurkezteko. Orain, «kazetari dinamizatzaileak» dauzkate, komunitatea dinamizatzeke, jendearekin egoteko: «Zuk Arrasate edo Bergara kontrolatzen baduzu, landu zure komunitate hori, zure iturriak», dio Eneko Azkaratek. «Alde batetik batzar batzuk egingo ditugu, taldetxo bat osatuko dugu komunitate hori zelan zaindu, sendotu, mantendu... Arau batzuk idatziz jarriko ditugu».

Pirinioetako komunikabideen egoera

Egoera ekonomikoa

Etorkizuneko aukerak aztertu aitzin, beharrezkotzat jo da gaur egungo egoera eta azken urteetako bilakaera ezagutzea. Komunikabide bakoitzaren egoera agertuko da atal honetan. Komunikabide guztiek antzeko arazoak dauzkate, hala nola diru-iturriak murriztu zaizkie. Nafarroan lan egiten duten komunikabideek (*Ttppi-Ttapa*, Xorroxin Irratia, Xaloea Telebista eta Irati Irratia) Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza galdu zuten 2009an, eta geroztik urte oso zailak pasatu dituzte. *Ttppi-Ttapa*-k telebista utzi behar izan zuen horren ondorioz. Haatik, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak handitu zaizkio azkenaldian. Xaloea Telebistari eta Xorroxin Irratiari, aldiz, diru-laguntzak murriztu zizkien Eusko Jaurlaritzak, azken urteetan. Xaloearen kasuan, Iruñerrian emititzeko lizentzia lortu dutenez, Eusko Jaurlaritzatik laguntza berriak jasotzeko mentura daukate. Xorroxin Irratiaren egoera ekonomikoa, ordea, larria da, diru-laguntzak anitz murriztu zaizkielako. Langileak Enplegu Erregulazio Espedientean daude.

Diru-laguntza gutxiago jaso dute Irulegiko Irratiak, Xiberoko Botzak eta *Herria* astekariak ere, azken urteetan. Xiberoko Botzak, sei langiletik bi langilera murriztu du bere taldea, azken urteetan. Irulegiko Irratiak langile bat gutxiago dauka orain, sei postu eta erdirekin. Horrez gain, Nafarroa Behereko irratiak galdu du Euskal Herria Zuzenean jaialdiko diru-iturria, ez delako gehiago antolatzaile. Xiberoko Botzak gero eta diru gutxiago jasotzen du etxez etxe egiten duten kanpainatik. Hain zuzen, bi irrati horien diru-iturri handietariko bat da entzuleek ematen dutena. Irati Irratia ere entzuleen diruari esker bizi da. Mila biztanleko eremuan (Aezkoa, Erroibar, Orreaga eta Luzaide) entzuten da. 170 bazkide dauzkate, dirua ematen dutenak. Hainbat urtez isilik egon ondoan, iaz berriz hasi ziren programazio batekin.

Kanaldude telebistak diru-laguntzak lortzen ditu erakunde publikoetatik, hizkuntza-politikaren baitan. Lurrelde-garapenaren eta sozialaren arloan ere

galdetu dituzte laguntzak. Inguruko enpresekin egiten dituzten partaidetzen bidez ere lortzen dute aurrekontuaren zati bat estaltzea: hain zuzen, haien lanaren erdia enpresentzako bideoak ekoiztera dedikatzen dute. Xaloa Telebistak ere ekoizten ditu bideoak enpresentzat, eta hori ere diru-iturri bat da. *Ttapi-Ttapa*k ere bilatzen ditu beste diru-iturri batzuk, zerbitzuak eskainiz: diseinua, publizitate-salmenta, inprenta- aukera hoberenak bilatu hirugarren enpresa batzuentzat...

Publizitatearen aldetik, egoera aldakorra da komunikabide batetik bestera: Xorroxin Irratian mantendu da edo pixka bat igo da; *Ttapi-Ttapa*-n murriztu zaie, besteak beste tokiko merkatu txikia bera ere murriztu delako.

Komunikabideen lana

Euskal Pirinioetako euskarazko komunikabideek, denen artean, 39 langile dauzkate (batzuk denbora erdira, batzuk administrazioko lanetan).

Pirinioetako komunikabideetako langileak



Irudia. Euskal Pirinioetako komunikabideetako langileak. Iturria: lanketa propioa.

Komunikabideetako lan-ordutegiak, berez, malguak izaten dira. Bakoitzaren egoera ekonomiko larriaren eraginez, ordu luzeagoak egin ohi dituzte. Xaloa Telebistan lanaldi erdian ari badira ere, langileek lan gehiago egiten dutela aitortu du Joseba Igerabidek. Xiberoko Botzakoak ere «langile militanteak» direla dio Artzen Letona irratiko koordinatzaileak. Lan ordu «ofizial»etatik at, ordu anitz sartzen dute. Arratsetan bilera franko edukitzen dute, adibidez. Halaber, urteroko etxez etxeko kanpaina antolatzen parte hartzen dute. Gauza bera gertatzen da Irulegiko Irratian ere, Pantxika Arranbide irratiko koordinatzailearen arabera: «Elkarteko kide gara eta maite dugu irratia, orduan denbora gehiago egiten dugu askotan, baina ez gogoz

kontra». Irati Irratiak langile bakarra dauka, egunean bost orduko lanaldia duena: «9:00-14:00 eta astelehenetik ostiralera egoten naiz. Hori da kontratuan jartzen duena, baina ordu gehiago egoten naiz hemen azkenean», dio Arkaitz Almorzak.

Xorroxin Irratikoak ahalegintzen dira ordutegia betetzen, nahiz eta ordutegia moldatu behar izaten den, sortzen diren beharren arabera, Josetxo Apezetxeak aipatu duenaren arabera. *Tipi-Ttapako* langileek ez dute lan-karga bera izaten urte osoan. Lan gehiena ekainean, uztailean eta urte bukaeran izaten dute. Urte bukaeran, orekatzen ahalegintzen dira, behar baino ordu gehiago ez dezaten pasa lanean: «Guk dakiguna da urte osoan zehar egin beharreko orduak zenbat diren eta zenbateko oporraldia dagokigun, orduan horri begiratzen diogu», dio Joxema Irigoienek.

Kanaldudeko langileak kooperatibistak dira, eta zenbait urte iragan dituzte oporrik hartu gabe edo ordu gehigarriak kobratu gabe. Batzuek egiten dituzte astean 50-60 ordu, eta beste batzuek kontratuko orduak betetzen dituzte. Baina langile batzuek beren orduak markatzeak eta beste batzuek ez markatzeak arazoa sortu zuen epe luzera, eta orain ahalegintzen dira lan bakoitzak eskatuko duena aurreikusten, Ximun Karrereren arabera. Kanalduderen beste berezitasuna da laguntzaileekin ere funtzionatzen dutela, eta hainbat lagunek parte hartzen dute edukiak sortzen, ekitaldi handietan batez ere (Korrika, manifestazio handiren bat...).

Gizartearen parte-hartzea

Hainbat komunikabidek herritarren diru-laguntza jasotzen dute. Horrez gain, boluntarioen lana ere eskatzen dute, nahiz eta azkenaldian horrek ere gibelera egin duen. Boluntarioak izan dira garai batez Xorroxin Irratian, baina azkenaldian ez daukate horrelakorik. Haatik, herritarrek jaietan parte hartzen dute: «Ezinezkoa egiten zen irati hau aurrera ateratzea laguntzarik gabe; herritarrek zentzu horretan asko ematen dute, edukiaren zati handi bat haiek ematen baitute». Hala ere, herritarren parte-hartzea ez da bat-batekoa, irratikoek «mesedez eskatuz» joan behar izaten baitute haiengana.

Xaloea Telebistak ateak ireki izan dizkie gazteei emankizunak egiteko: «Gazteekin saiatu izan gara beraien saio bereziak, eta beraien estiloko zerbait sortzen, eta hasieran izan zen zerbait hiru gazterekin, eta gainera ordaintzen zitzairen, baina gero bukatu zen», argitu du Joseba Igerabidek. Herritarrek badaukate zorion-agurrak eta helide elektronikoa igortzeko aukera. Baina azkenaldian herritarren ekimen hori ere gelditu zen. «Horregatik sortu dugu saio bat indarra emateko, baina horri orduak eskaintzea dakar horrek, eta noski, hori erronka zaila da».

Herria astekariak laguntzaile-sare zabala dauka, 40 bat lagunek igortzen dizkiotelako beren herrietako kronikak.

Xiberoko Botzak gero eta laguntzaile gutxiago dauka kanpainak antolatzeko edota saioak egiteko. Beraz langileen lan-karga handitu da. Zuberoako elkarteekin harreman ona daukate, oro har, bai kirol-taldeekin bai gazte-taldeekin. Gazteen-gana joateko ahalegina egiten dute, batez ere ikastetxeetan irati-tailerrak eskainiz.

Irulegiko Irratian ere behera egin du laguntzaile kopuruak. Boluntarioek osatzen dute administrazio-konseilua, baina gaur egun hiru kide baizik ez daude; ondorioz, lan administratiboak egitea ere kazetarien gain gelditu da azkenaldian. Irratiaren sostengu-kanpainak antolatzeke, lehen baino laguntzaile gutxiago aurkitzen dute. Herritarrek, berez, badaukate Irulegiko Irratiko programazioan parte hartzeke aukera, baina lehen baino askoz gutxiago dira aukera hori baliatzen dutenak: «Guk ez dugu debekatzen, alderantziz prest gaude, eta musika-saio bat bi laguntzailek egiten dute. Baina hasten direnak, nekatzen dira momentu batean ere; momentu batean laguntzaile askorentzat gehiegizkoa da; eta erraten dizute, orain ezin dut, badut beste proiektu bat». Haatik, kirol-informazioak ematen dituzten laguntzaile-sare handi bat badauka Irulegiko Irratiak.

Irati Irratiarentzat ezinbestekoa izan da gizartearen parte-hartzea. Biztanle gutxi daukan gune batean dago, baina herritarren parte-hartzea izan da «garrantzitsuena iratiak bere etorkizuna bermatu ahal izateke». Irratiak funtzio soziala betetzen du Irati ingururako, bertako kideen ustez: «Irratia da bertako errealitatearen bozgorailu, orduan herri hauek txikiak izanda ere, oso biziak dira eta gauza asko gertatzen da, orduan antolatzen duten guztia % 95 behintzat hemen iragartzen dugu».

Kanaldudek «jendearekin lan egiten» du, Ximun Karrereren arabera. Ahalegintzen dira gaurkotasunetik urruntzen, gai horiek lantzen dituztelako beste komunikabideek. Herrietako gaiak, hurbilagokoak, atemporalagoak lantzen dituzte. Haienentzat, laguntzaileen eta parte-hartzaileen figura oso garrantzitsua da. Alde batetik daukate «laguntzaileak» deitzen dituztenak, «Kanaldude ezagutu eta behin parte hartu dutenak, eta gero prest daudenak laguntzeke erreportaje batean, ekitaldi batean». «Parte-hartzaileak» deitzen dituztenak, aldiz, dira ekintza batean hastetik buru lan egiten dutenak. Adibidez, ikasleak ere badituzte, eta platoko telebista-saio bat egiten dute. «Guk laguntzen diegu ideia eta antolakuntza egiten, aurkezpena, teknika, zuzeneko teknika...», azaldu du Karrerrek. Tokian tokiko saioak bertako jendearekin bilduz diseinatzen dituzte, maiz. Karrerrek dio Kanalduderen helburua «komunitatea sendotzen laguntzea» dela, eta uste du «maila txikian seriooki lortzen» dutela: «Beharbada emankizun bikaina ez dugu egiten, baina loturak lortzen dira eta ere jende batzuek beren herrialdeko gai bat hobeki ezagutzea».

Ttapi-Ttapa aldizkarian ez dago herritarren parte-hartzerik, kolaborazioak idazten dituztenena kenduta, Joxema Irigoienek arabera. Harpidetzetatik aparteko diru-emailerik ere ez dago.

Komunikabideen arteko harremana

Pirinioetako komunikabideen arteko harremanak era anitzetakoak dira, batzuetan egonkorragoak, beste batzuetan ez.

Ipar Euskal Herriko komunikabideek (*Herria*, Euskal Irratiak, Kanaldude, *Berria* eta *Kazeta.eus*) elkarlana daramate azkenaldian. Elkarrekin saio bat egiten dute hilabeteen behin, eta hauteskunde-gauak ere elkarrekin antolatzen ibili dira azken hilabeteetan. Baina bereziki, Ipar Euskal Herriko irratiaren arteko elkarlana da erro sakonenak dauzkana. Xiberoko Botzak eta Irulegiko Irratiak hastapenetik daukate

harremana, eta emankizunak elkarrekin trukutzen dituzte. Horrez gain, Antxeta Irratia eta Gure Irratiarekin batera, Euskal Irratiak federazioaren parte dira, eta elkarrekin programazio komuna daukate.

Ondoko taulan ageri da zein komunikabidek daukan harremana zeinekin (bi gurutze daudenean, harreman sakona dago):

	Herria	Irulegi	Xibero	Irati	Xorroxin	TtipiTtapa	Xaloa	Kanaldude
Herria		X	X					X
Irulegi	X		XX		X			XX
Xibero	X	XX		X				X
Irati			X		X			
Xorroxin		X		X		X	X	
TtipiTtapa					X			
Xaloa					X			
Kanaldude	X	XX	X					

Irdia. Euskal Pirinioetako komunikabideen arteko harremana. Iturria: lanketa propioa.

- Irati Irratiak eta Xiberoko Botzak elkarren berriak ematen dituzte, konexio bidez.
- Irati Irratiak eta Xorroxin Irratiak astean 15-20 minutuko saio bat egiten dute beren eskualdeko berriak kontatuz, bakoitzak bestearen irratian.
- Kanaldudek eta Irulegiko Irratiak harreman sendoa daukate, «ibilbide luzea». Irulegiko Irratiaren esperientziak asko balio izan du Kanalduderentzat, nola antolatu eta funtzionatu jakiteko.
- Kanaldude eta Xaloa Telebistek izan zuten harremana duela zenbait urte, diru-laguntza batzuk ere eskuratu izan zituzten. Baina bi telebista mota ezberdin izateak egunerokoan zailtasuna sortzen die, Joseba Igerabide Xaloa Telebistakoak azaldu duenez: «Beraiek bideo bitartez funtzionatzen dute, eta guk eguneroko emisioan. Proiektu hori egin genuen diru-laguntza batzuk lortzeko. Gu prest ginen behar zutena emateko eta beraiek ere, baina ez ginen baliatu besteen gauzez, eta bakoitzak berera egiten zuen azkenean». Ximun Karrere Kanaldudeko koordinatzaileak gehitu du: «Biak sobera aldatu behar ginen». Horrez gain, bi telebista-kateek lege ezberdinen arabera ibili behar dutela dio.
- Xorroxin Irratikoek grabatzen dituzten hainbat audio Xaloa Telebistan ere emititzen dituzte. Edo prentsaurrekoen kasuan, bat ezin bada joan, bestea joaten da, eta audioa edota prentsa-oharra pasatzen dio.
- Azken urteetan lehen baino harreman gutxiago dago Irulegiko Irratiaren eta Xorroxin Irratiaren artean: «Beharbada bakoitzak bere lehentasunak ditu. Astean behin egiten genuen tratua, guk pasatzen genien beraiei eta haiek guri asteko kronika edo. Baina lehenago Europako laguntza bat ere izan zen, baina dena galdu zen eta tira», dio Josetxo Apezetxeak. Irulegiko Irratiko Pantxika Arranbidek aitortu du gaur egun ez dituztela gehiago erabiltzen Xorroxin Irratikoaren kronikak: «Batuetan gure kazetariak hango

berriak ematen ditu. Aldaketa hori ez dakit zergatik egin zen, beharbada telefonoz hitz egitea ez zelako modu egokiena kronika bat emateko».

- *Ttipi-Ttapak* berriak «gurutzatzen» ditu Xorroxin Irratiarekin.

Pirinioetako proiektu komunak sortzen dituen kezkak

Jarraian sakonduko dira zein diren elkarrekin komunikazio-proiektu bat sortzeak eragiten dituen kezkak, atalez atal bilduta.

Lan-kargari dagozkion kezkak

Plataforma digital bat sortzeak kezka eragiten du, batez ere horrek eskatuko lukeen lan-kargatik. Elkarriketatutakoek eta eztabaida-taldean bildutakoek uste dute, nahi ala ez, lan gehiago eskatuko diela webgune hori elikatzeak. Batzuek uste dute langile bat hartu beharko dutela edukiak webgunean ezartzeaz ardua dadin. Aipatu da horrek koordinazio- edo kudeaketa-lan bat gutxienez eskatuko duela, eta hori ekonomikoki neurtu behar dela.

Lan-kargaren kezka ez du sortzen agregatzaile soil bat izateak, baizik eta egin beharrekoa hori baino gehiago izateak, batez ere, horrelako webgune bat maiz berritu beharko delako eta elkarrekin era koordinatu batean egin beharko delako. Xiberoko Botzaren beldurra da, adibidez, horrelako proiektu batean sartzea «sobera pisua» izatea. Allande Errezarretrek aitortzen du Zuberoak baduela bere lekua horrelako proiektu batean: «Baina nork zer egin behar du eta zein ahalmenekin?». Antzeko galderak egin ditu Irulegiko Irratiko Pantxika Arranbidek ere.

Bakoitzak bere gaiak bere eskualdearen ikuspegitik lantzen dituela azaldu du *Ttipi-Ttapako* langile batek. Horren arabera, gai batzuk ez dira eskualdekoak soilik, ordea. Gaiak eskualdera ekartzearen arazoia da eskualdeko irakurleen interesera ekartzea. Pirinioetako agerkari batera ekartzeko, gai horiek berak beste era batera landu beharko liriatekeela uste da. Kasu guztietan, elkarrekin koordinatu eta adostu beharko lituzkete lanak. Horrek ekar lezakeen lan gehigarriaren gaia atera da eztabaida-taldean.

Komunikabideen egoeraren kezka

Xorroxin Irratiko Josetxo Apezetxeak azaldu du beren irratia-egoera ekonomiko larria ikusirik, kezka handiarekin hartzen dutela beste proiektu batean sartzea. Are gehiago, beldur da horrelako proiektu bat sortzeak ez ote dituen murriztuko diru-sarrerak: «Aldizkari horrek ere publizitatea beharko luke. Ondoren, bezero batek ere erabaki beharko du. Garestia bada guk gutxiago jasoko dugu». *Ttipi-Ttapako* Joxema Irigoienek aipatu duen kezka bakarria ekonomikoa da: «Horrek zer ekarriko du? Ordaindu beharretan, zer kostu ekarriko digu? Orain egoera dagoen bezala, ez dago erantzunik horrentzat».

Herria astekariaren oraingo arazoa da ez daukatela beren webgunerik. Beraz, plataforma digital baterako ekarpenak egin aurretik, gabezia horri erantzun behako liokete. Baina zailtasunak dituzte, bi lagun daudelako bakarrik lanean, eta ez dakite

nola lotu webguneari: «Hori egiteko dirua ere nondik aterako dugun ez dakigu, baina hori emeki-emeki ikusiko dugu». Beren webgunearekin daude kezkatuta Xiberoko Botzakoak ere: «Guk ahalmen gehiago sartu beharko genuke gure programazioan. Horretan pentsatzen ari gara, nola egingo dugun gure webgunearen biziartzea berriz ere, eta ez horrelako webgune triste eta eraberritu gabeko batekin jarraitu».

Beste kezka-iturri bat da laguntzaileen sarea txikitzen ari dela, gorago aipatu bezala. Xorroxin Irratikoek argitu dute gero eta kolaboratzaile gutxiago daukatela. Komunikabidearen ideiak dudak sorrarazi dizkie *Tipi-Ttapakoei*, jendeak ez duelako haien webgunean parte hartzen: «Mugimendu gehiena Facebook-etik dator», diote. Edo bestela «batzuek oraindik berriak telefonoz pasatzen» dizkiete. Ondorioz, komunitatea aktibatzea eta animatzea bera lana izanen litzatekeela uste dute.

Aurreko esperientzien oroitzapena

Xorroxin Irratiak ez du oso balorazio ona egin aurreko lankidetzaren esperientziez. Euskarazko irratiek Arrosa sarea osatu zuten, baina Josetxo Apezetxearen arabera, Xorroxinek ez du «horrenbesteko zukurik atera». Denboraren poderioz, lankidetzaren hori «moteltzen» joan dela dio. Eta Nafarroako irratien arteko elkarlana «dagoeneko ez da existitzen». Horri lotuta, beste kezka bat ere azaldu dute: gaitegia. «Gaur nonbait zerbait gertatu da eta interesa dakiguke, baina agian oso lokala da eta ez zaigu interesatzen. Puntualki zerbait bai, baina ez dakigu hainbesteko lankidetzaren edo hain onuragarria izango den», diote Xorroxin Irratikoek. Xiberoko Botzako Artzen Letonak gogoratzen du lehen ere egin zirela saretzeko ahaleginak, baina ez zutela funtzionatu.

Lehiakide berri baten kezka

Peio Jorajuria *Herriako* kazetariak interesgarria ikusten du horrelako plataforma bat, baina eskualdean badaude jadanik beste hainbat komunikabide, eta «beharbada daudenekin aski» badela dio. Federazio gisa mugatzen bada ongi ikusten du, «bat gehiago» baldin bada, zalantza gehiago dauka. Xiberoko Botzako Artzen Letonak aipatu duen lehen kezka ere «lehiakortasun gehiago» izateari buruzkoa da: «Guk badugu gure webgunea, xiberotarrena da, gure gauzak dira. Nik uste dut inguruko herrietakoak ere horrekin ohitu direla». Beraz lehentasuna beren webgunea sustatzeak duela dio.

Xaloea Telebistako Joseba Igerabidek indargune bat ikusten du komunikabide guztien artean: «Imajina ezazu, *Tipi-Ttapa* hartuz, Xaloea hartuz, Xorroxin hartuz, Irulegi hartuz, Irati Irratia hartuz... hoguei lagun gaudela lanean. Batez ere errealitate horiek guztiak saretzen baditugu, iruditzen zait hori izango dela eraginkorra». Haatik, saretze horrek dauden komunikabideak «arriskuan» jarriko balitu, ez luke babestuko. Beste arrisku batez ere ohartarazi du Joseba Igerabidek: publizitatearen merkatua banatzea.

Kanaldudeko Ximun Karrerek ikusten duen kezka da, halako hedabide bat hedabide soil izatea, bere eduki propioekin: «Hasten bada editorialki bere eremuko gauzak lantzen, hedabide bat bezala garatzen bada, bere sorkuntza eduki nahian, orduan arazoa sortuko du». Halaber, plataforma horrek komunikabide partaide bati

(Kanalduderi adibidez) eskatuko balio zerbait zehatza egiteko, proiektuak ez lukeela aurrera jarraituko uste du Karrerek. Elkarren edukien bilgune izanen den bitartean, interesgarritzat dauka. Baina beste hedabideen gaineratik jartzen den hedabide bihurtzen bada, orduan utziko lioke bertan parte hartzeari.

Eremu geografikoari buruzko zalantzak

Xorroxin Irratikoek agertu dute kezka geografikoa. Josetxo Apezetxeak galdetu du ea noraino hartzen den eremua. Udalbiltzak marraztutako eremutik kanpo daude Bortziriak eta Lapurdi. «Baina Lapurdi gure auzoaren lurralde bat da azken finean», dio Josetxo Apezetxeak. Halaber, Iruñerriarekin ere harremanak daudela dio. Beste langile baten aburuz, Pirinioetako eremua «geologikoa» da, ez dauka oinarri historikorik, eta ez dago harremanik alde batekoen eta bestekoaren artean. Ez du bideragarria ikusten. Antzeko solasak dituzte *Ttipi-Ttapako* kideek ere; gainerako kideek ere eremu «artifiziala» dela aitortu dute.

Joseba Igerabidek dio une honetan ez dagoela Pirinioetako ikuspegirik, «gehienbat Baztan, Bidasoaldea eta horrela, baina egia esan, ez da osoa». Xaloa Telebistak mugaz gaindiko proiektu bat egin zuen duela hamabost bat urte: «Baina konturatu ginen ez genuela ezer lortu eta ezin genuela han ezer sortu. Han ez du hemengo saioak interes handirik, eta gu ere ez gara haien bila joaten; ez dugu elkartzeko eta elkar trukatzeko dinamika bat sortu. Garai batean mugan zeuden artzainek tratu handiagoa zuten gaur egun daukaguna baino, hori horrela da, hori errealitate bat da».

Eremua artifiziaia izan ala ez, elkar hobeto ezagutzeko beharra berretsi dute Irulegiko Irratiko eta Kanaldudeko ordezkariak, ezaugarri asko berdinak direlako, mendi-eskualde izaera, adibidez.

Haatik, hizkuntzaren aldetik dauden desberdintasunak etorri dira mahai gainera. Leku guztietan ez dira denak mintzo euskaraz. Halako proiektu bat zein hizkuntzatan egingo litzatekeen galdetu da, ondorioz. «Erronkarin eta Zaraitzun *Mendixut* aldizkaria daukate, baina gehiena gaztelaniaz egiten dute», dio Xorroxin Irratiko ordezkariak. Xiberoko Botzak ere emankizun batzuk frantsesez egiten ditu, Zuberoan dagoen Mendi Lilia irratiaeren lehiari buru egiteko. Horrez gain, Xiberoko Botzakoek aipatu dute euskalkiaren muga, elkarlana egiterakoan.

Proiektuari ikusten zaizkion onurak

Kezkek sortzen badira ere, batzuek onurak ikusten dizkiote proiektu horri.

Lurraldetasunari ekarpena

Irati Irratiko kideek «oso erreminta positiboa izan daitekeela» diote, «harremanak indartuko liratekeelako». Gainera euskaraz izanda, azken finean komunikabide bakoitza elikatuko litzatekeela dio. Are gehiago, Irati Irratikoentzat, proiektu komun hori da «azkeneko urteetako berririk hoberenetarikoa». Irati Irratiak estaltzen duen eremuan horrelako zerbait behar zela uste dute, «nolabait sare sozial edo ehundura sozial hori bultzatzeko bai arlo ekonomiko eta baita sozialean ere».

Xorroxin Irratiko Josetxo Apezetxeak azpimarratu du eskualdeen arteko harreman handiagoa zegoela garai batean, baina «galdu» egin dela. Lotura horiek berreraikitzeke lan egin behar dela dio. Ximun Karrere Kanaldudekoak gehitu du mendi beraren bi aldeetan bizi direla Nafarroa Beherekoak eta Baztan aldekoak. Hedabideen artean bi aldeak elkartzea posible ikusten du, eta interesgarritzat jotzen du. Hizkuntzaren eta kulturaren aldetik aberasgarri izango dela gehitu du.

Irulegiko Irratiko Pantxika Arranbide konbentzitua da horrelako zerbait egiten bada, eskualdeari begirako «oihartzuna handitu dezakeela». Proiektua «egin behar» dela gehitu du: «komunikatzeko; ez baldin badu inork egiten, inork ez daki zer pasatzen den mendien bestaldean». Ttipi-Ttapako Joxema Irigoienek ere eskualdea artikulatzearen mesedea ikusten dio proiektuari: «Interesgarria izaten ahal da hori, gaur egun erabat ezezagun gertatzen ahal dena gure lan-talde, erabiltzaile eta irakurleentzako ere, nolabait beste hedabideen bitartez kontaktua sortzea».

Elkarlanaren beharra

Denak bat datoz errateko elkarlana beharrezkoa dela eremu horretako euskal komunikabideen artean. Oro har elkarlan gutxi dagoela erratearekin bat etorri dira denak, eta Baztan-Bortziritetako eskualdeetan komunikabide bat baino gehiago baldin bada ere, bakoitza bere aldetik ari dela diote, elkarrekin deus egin gabe. Zerbait gehiago egin behar litzatekeela diote denek, baina deus zehaztu gabe. Elkarlana aipatzean, ordea, ez dute lotzen Pirinioetako plataforma digital batekin. Hori egin ala ez, elkarlana beste gisa batean ulertzen dute denek: elkarrekin berri batzuk lantzea, beste komunikabideetarako gaiak lantzea.

Eztabaida-taldeko Kanaldudeko ordezkariak proposamen batzuk egin ditu: «Bi urtetarik behin egiten da Banka, Aldude eta Urepeleko azoka. Uste dut zerbait egin dezakegula Xaloa Telebistarekin». Haren ustez, urtean hiruzpalau gertakirekin inguruan elkarlanean zerbait egin dezakete Pirinioetako euskarazko komunikabideek. Horrekin aski adostasun zabala egon da mahaiaren inguruan bildu direnen artean, batzuk beroago eta beste batzuk hotzago izanik ere.

Elkarlan horrek komunikabide bakoitzari ekar liezaiokeenaz galdetuta, Xorroxin Irratiko Josetxo Apezetxeak aitortu du informazio gehiago eskuratzeko bidea zabal lezakeela horrelako sare batek. Kanaldudeko Ximun Karrerek uste du denborarekin elkarlan sendoa lor daitekeela. «Geroz eta gehiago ezagutzen badugu zer egiten duen ondokoak, geroz eta gauza gehiago sortuko ditugu». Haatik, horretara heltzea «biziki luzea» izanen dela ohartarazi du. Ximun Karrerek eduki gehiagotara iristeko aukera ikusten dio proiektu horri, informazio gehiago zentralizatzekoa. Horrela, adibidez, Zuberoako informazioa jasotzeko aukera gehiago luketela dio, plataforma horretan Zuberoako informazioa ere biltzen baldin bada.

Publizitate-aukera berriak

Elkarlanaren harira, Ipar Euskal Herriko euskarazko komunikabideak hasiak dira publizitatea «pack» erara proposatzen. Eragile batengana joaten dira euskarazko komunikabide guztien izenean, eta eskaintza orokor bat egiten diote. Hastapenean kezka eta zailtasunak baldin bazituzten ere, zenbait hilabeteren buruan ohartu dira

sistema berri horrekin iragarki gehiago lortzen dutela. «Eragileek denbora gehiago irabazten dute: bitartekari bakarra daukate. Lehen bost hedabideekin behar zituzten egin kontratuak, orain bost aldiz denbora gutxiago pasatzen dute». Pixkanaka-pixkanaka gero eta eragile gehiagorengana heltzea lortzen ari dira, erakunde publikoak barne.

Proiektuari buruzko jarrera

Parte hartzeko aukera

Oro har, jendea parte hartzeko prest legoke, lan gehiago eskatuko ez balu. *Ttapi-Ttapa* aldizkariari ez dio kezkarik sortzen, baina itxaropen berezirik ez, proiektu berriak. *Ttapi-Ttapako* langileek ez lukete arazorik izango parte hartzeko, beren edukiak editatu gabe igo behar balira. Edizio-lan bat eskatuko balu, oraindik ez dakite zer erantzun, ez baitakite zer lan eskatuko lukeen.

Irulegiko Irratiko langileek «gogoa» izango lukete horrelako proiektu batean parte hartzeko, «ez bazaie lan gehigarrik ematen», Pantxika Arranbideren arabera. Baina ez da langileen «disponibilitatea arazo bakarra», dioenez. Langile guztiek ez dakite Internet erabiltzen, eta beraz prestakuntza bat jaso behar lukete.

Xorroxin Irratikoek dena berde ikusten dute oraingoz, eta ez daude oso bero. Xorroxinen beldurra da plataforma horretan parte hartzeak denbora kenduko liekeela beste lanetarako. Aldiz, egiten den lana editatu gabe zintzilikatzea «berehala egin daitekeela» zehaztu dute. *Herria* astekaria ere prest legoke parte hartzeko, lanak editatu gabe partekatzeko baldin bada. Iritzi bera du Xiberoko Botzak ere, baina horretarako beren webguneari ere denbora eskaini beharko lioketela zehaztuta. Xaloa Telebista ere prest dago parte hartzeko, zehazki, ekoizten dituzten edukiak igotzeko.

Irati Irratikoek gustura parte hartuko lukete horrelako proiektu batean: «Lehenengo izango litzateke guk sortzen ditugun euskarazko edukiak sarera igotzea. Han dagoen zerbait ere interesgarria dela iruditzen bazaigu, guk ere hori landuko genuke. Nik uste dut parte hartu, hartuko genukeela, editatzen saiatuko ginatkeela», dio Arkaitz Almorzak. Bere eremuko pertsonak eta erakundeek ere edukiak igoko lituzketela uste du: «AEK hor dago, gazteria hor dago eta nik uste dut, benetan eragina eremu osoan izango lukeela eta ez bakarrik irratian». Editatu gabeko lanak igotzeko arazorik ez du ikusten Arkaitz Almorzak. Landu behar diren gaiekin, ez daki zenbateko lana behar izango duen. Estilo-liburu bat landu behar litzatekeela ere aipatu du, arau komun batzuk sortzeko.

Joseba Igerabidek argi utzi du, ordea, Xaloa Telebistak ez lukeela parte hartuko, ikusiko balute berentzat ondorio txarrak izanen lituzkeela. Neurri ekonomikoari ematen dio garrantzia: «Zailtasun-egoera honetan batek eramaten baldin badu dirua eta besteak lana jarri, eskuzabaltasunez, horrek oreka hautsi dezake». *Herria* astekariak ere ez luke parte hartuko, asmoa «hedabide berri bat sortzea» bada. Xiberoko Botzak ez du indar handirik jartzeko asmorik: «Baldin bada lan berezi bat egiteko, hastapenean eginen dugu, baina badakigu horrela lanean ez dugula

jarraituko, nekez segituko dugula». Ikusten duen aukera da irratiko laguntzaile batek hartzea lan hori bere gain. Dena den, plataforma horretan parte hartzea ez litzateke «lehentasun bat» izanen.

Kanaldudeko Ximun Karrerek uste du beren komunikabidearentzat aberasgarria izan daitekeela, sortzen dituzten edukiak mendiz bestaldean ere ikusi ahal izango liratekeelako. Haatik, oraino ez dute aztertu ea horrelako proiektu batean sartzeko prest liratekeen ala ez.

Edukiei buruzko iritzia

Zer-nolako edukiak partekatuko litzuketen galdetzean, ez dago iritzi adosturik. Xiberoko Botza, *Herria*, Xorroxin Irratia edota Xaloa Telebistakoek uste dute eduki lokalek ez dutela interesik beste eskualdeetako jendearentzat, eta, beraz, ez litzukete partekatuko eduki horiek. Xorroxin Irratiak, adibidez, partekatuko litzuke beste lekuetako jarraitzaileei interesatzen zaizkien gaiak, ez «gauza oso lokalak edo oso hemengoak, herri txiki bateko festak adibidez».

Xorroxinekoen ustez aztertu behar litzateke zein diren eskualde osoan berdintsuak diren gaiak: «Bakoitzak zer egiten duen ikusi beharko litzateke eta besteentzako interesgarria izan daitekeena ere erabaki. Zein? Zaila da». Joseba Igerabide Xaloa Telebistakoaren ustez, elkarrekin ongi gogoetatu behar dute edukien inguruan: «Noski, elkarrekin zer egin erabakitzeke, jendea edota taldea ziur sentitu behar da. Baina ez da elkarlan bat izango, gehienbat izango da errealitate ezberdinetako bilduma bat».

Irati Irratiko kideek hainbat gai ikusten dituzte eremu osorako interesekoak, adibidez Aezkoa aldean harrobi-proiektu batekin daukaten arazoa, edo Urepeleko behi-marka eguna... Tokiko gaiak igotzea ere interesgarri ikusten dute. Halaber, elkarteen parte-hartzea ere ikusiko lukete Irati Irratikoek: «Funtzionamendua hori izango litzateke: parte-hartzailea eta askea den zerbait. Nolabait jendea moderatzen egongo litzateke norbait, iraintzen duen informazioa egon ez dadin, baina jendeak bere eremuko eta garrantzia duen iritzi artikulu bat adibidez, edozer, igo eta plazaratzea».

Pantxika Arranbide Irulegiko Irratiko koordinatzaileak webgune «arin» bat ikusiko luke, «bideo eta soinuekin osatua». Halaber, haren ustez, «elkarteentzat leiho bat ere izan behar du, ez bakarrik irati eta komunikabideen arteko sare bat, baizik eta elkarteak ere batzen dituena barnean». Irratiko kazetariak gai politikoak eta kulturalak sartuko litzukete. «Udal batean hartzen diren erabaki batzuek interesa ukan dezakete kanpoan ere. Ekonomia berriak ere, lotuak badira, eman daitezke. Kulturen ere, ekintzen irudiak eman daitezke», gehitu du.

Tipi-Ttapako Joxema Irigoienek uste du «gertutasuna islatuko luketen edukiak» behar litzukeela: «Hezkuntzaren egoera Pirinioen alde batean eta bestean, edo ekonomiaren egoeran egon daitezkeen gurutzaketak, kulturaren arloan ere, hori noizbait ere islatu beharko litzateke. Baina denek ere azkenean hurbileko informazioaren inguruan dagoenarekin pilotatzen dute. Nik uste dut, horietatik kanpo egongo litzatekeen zerbait egoteak ez lukeela zentzurik izango». *Tipi-Ttapak* ez

luke arazorik bere edukiak plataforma horretan partekatzeke, baina denek igotzen dituzten edukiek koherentzia behar dutela uste du, estilo aldetik. «Hori egiteko, horretara emanak diren kazetariak ere beharko genituzkeela uste dut, dinamika batzuk egon beharko liratekeela, lanketa horiek posible egingo lituzkeenak. Bestela, gertatuko zen denok gure eguneroko lana egingo genukeela, eta horrek ez lukeela koherentzia bat izango». Horrez gain, «eskualdea bera landuko lukeen kazetaritza bat» beharko litzatekeela gehitu du.

Alde horretatik, edukiak elkarren artean lantzea bakoitzarentzat aprobetxagarri izan daitekeela uste du Irigoienek: «Adibidez, eremu berdineko bi hedabidek gai bera lantzen dute, baina bakoitzak bere erara eta bata besteari informazioa ahalbidetzen dio, baina azkenean bakoitzak bere ukitua ematen dio. Beraz, horrela balitz, erraza litzateke, esfortzu bat egiten duzu baina zurean ere aprobetxagarri izan daiteke. Horrelakoak egingarriak dira. Gakoa, nire ustez, planteamendu horretan dago. Lan komunitarioa egiteko modu interesgarri bat dela iruditzen zait, auzolanean egiten ahal diren gai-lanketak direlako».

Ximun Karrereren arabera, edukien partekatzea nola erabaki ongi pentsatu behar litzateke. Bi aukera ikusten ditu: edo komunikabide bakoitzeko kazetariak edo horretaz arduratuko den batek erabakiko lukete zer eduki igo edo ez; edo komunikabide guztien gaintik dagoen pertsona batek erabakiko luke bakoitzetik zein eduki hartu edo ez: «Horiek bi antolakuntza mota ezberdin dira eta nire ustez hautu hori ez dute bakarrik eginen, behar da parte hartu besteekin erabakitzeke nola egin daitekeen. Arazoa izan daiteke ez aski hautatzea eta beraz gauza gutxi egotea, edo ez aski ezagutza edukitzea jakiteko ematen dena aski interesgarria den eta nork kudeatzen duen, nola begiratua izango den».

Ondorioak

Hainbat ondorio atera daitezke ikerketa honetatik. Ikerketak balio izan du Pirinioetako komunikabide bakoitzaren egoera ezagutzeko, baita egoera orokorra ere. Halaber, elkarrekin edozein proiektu aitzina eramaterakoan kontuan hartu behar diren kezkek, ahulguneak eta indarguneak identifikatu dira:

- Pirinioetako euskarazko komunikabideak zortzi dira, eta denen artean 39 pertsona ari dira lanean. 39 profesionalak osatuko luketen sare bat sortuko litzateke, plataforma hori aurrera aterako balitz.
- Ia denek gero eta aurrekontu murriztagoa daukate azken urteetan. Haatik, komunikabide gehienek beren irakurle edo entzuleen diru-emaitzak jasotzen dituzte.
- Langileen dedikazioari dagokionez, komunikabide gehienetan orduak ez dituzte zenbatzen. Langile «militanteak» dira kasu gehienetan.
- Batzuen arteko harremanak badaude, jarraikiagoak edo ez, sakonagoak edo ez. Komunikabideen arteko bitariko harremanak badaude, baina azkenaldian ez dira oso sendoak.

Elkarrekin proiektu bat sortzeak kezka franko eragin du, zerrrenda honetan laburbiltzen direnak:

- Lan gehiago eskatuko du, koordinazio aldetik eta gaien lanketa aldetik.
- Diru gutxiago izango da bakoitzarentzat, eta gastu gehiago.
- Nola parte hartuko dute webgunea garatu ez dutenek edo eguneratzen ez dutenek?
- Komunitatea ahul dago; parte har dezan, dinamizatzeko lan handia egin beharko da.
- Lehen ere egin ziren bateratze-esperientziak, eta ez ziren aurrera atera.
- Plataforma berria lehiakide bat gehiago bihurtu baledi, begi txarrez ikusiko litzateke.
- Eremu geografiko artifiziala da.

Halaber, alde baikorrek ere ikusten dizkiote proiektuari:

- Lurraldetasuna: elkarren ezagutza handiagoa, kohesioa.
- Euskarari mesede egitea.
- Elkarlana garatzea.
- Publizitaterako aukera berriak.

Beste eskualdeetako esperientzietatik ahalegin daiteke zenbait galderari erantzuten. Adibidez, Tolosaldean, udalek berek saritu nahi izan dute bateratzea, beraz horrek diru-sarrera handiagoak eragin ditzakeela uste dute. Uriola.info egoera berean dago, erakundeen aurreiritzi baikorrek eta diru-iturri berrien menturarekin. Guaixeko diru-laguntza berri batzuk heldu zaizkie webgunea garatzeagatik. Publizitaterako aukera berriak ere ikusi dituzte. Goienak garbi ikusi du diru-iturri handiagoak sortu zitzaizkiela, enpresa handien iragarkiak lortu ahal izan dituztelako, adibidez. Bestetik, azpimarratu dute proiektuak ez duela gastu handirik eskatzen, hasierako programazio informatikoa ez bada. Esperientzia horietatik erran daiteke kezka ekonomikoa kentzeko arazoak badaudela. Haatik, Pirinioetako proiektu bat sortzerakoan, ikusteko dago zein izango litzatekeen bertako herri eta herri-elkargoen erantzuna. Kontuan hartu behar da, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, herri oso txikiak osatzen dutela Pirinioetako bi aldeetako eremua, eta ez daukatela aurrekontu handirik. Baina egoera demografiko eta ekonomiko zailean proiektu bat sortzeak beste ate batzuk ireki ditzake, baita «mugaz gaindiko» proiektua izateak ere. Ate horiek aztertu beharrekoak dira. Bestetik, publizitatearen aldetik aukera berriak ere egon daitezkeela aipatu da.

Elkarrekin zerbaitek balio luke, bestalde, eskualdea kohesionatzeko. Haatik, beste esperientziak ez dira oso baliagarri Pirinioetakoa aurreikusteko. Goienak, Tolosaldeko Atariak, Guaixek, Anbotok baita Uriolak ere eskualde naturalak dituzte ardatz, Debagoiena ibarra, Tolosaldea, Sakana, Durangaldea eta Bilbo ingurua, hain zuzen. Pirinioek, ordea, hainbat eskualde dauzkate beren baitan: Baigorriko ibarra, Garaziko ibarra, Zuberoa, Irati ibarra, Baztan eskualdea, Bortzirikiak... Funtsean,

Goierri, Tolosaldea eta Debagoienarekin plataforma digital bakarra sortzea bezala izango litzateke, edo Debagoiena eta Durangaldearekin... Aizkorriren bi hegalak batuz; edo Udalatzen bi hegalak, adibidez. Ondorioz, geografikoki bederen, ez dira guztiz konparagarriak Pirinioetako proiektua eta azken urteetan garatu diren besteak. Batzuentzat, ordea, funtsezkoa da mendiaren alde batekoak eta besteak proiektu berean elkartzea, antzeko errealitatea dutelako, elkar hobeki ezagutzeko eta eskualdea kohesionatzeko. Euskararentzat ere aberasgarri izanen litzatekeela diote komunikabide gehienek.

Ekoizpenari dagokionez, Pirinioetako eskaintzaren aberastasuna kontuan hartuz, aurreikus daiteke Pirinioetako plataforma batek izan dezakeela ekoizpen aski handia, bertan parte hartuko duten komunikabideek produkzio handia daukatelako. Halaber, herritarren parte-hartzea susta daiteke, aspaldiko tradizioa baitago horretan, nahiz eta apaldu den.

Baina edukien inguruan ere egin beharko da gogoeta. Gehienek ez dute uste agregatzaile soil bat izatera mugatu behar duenik, eta elkarlana egokitzen daukate, betiere, beren independentziari eusten dioten bitartean. Edukien aldetik aberasgarri izan daitekeela uste dute anitzek, baina aztertu behar da nola egin behar duten aberasgarri izateko.

Horrelako plataforma digital batek sor lezakeen lan gehigarriak piztu ditu kezka handienak Pirinioetako komunikabideetako langileen artean. Halako plataformak sortu dituzten beste esperientzietatik abiatuta, argi gelditzen da kezka horrek badaukala oinarria, besteak ere antzeko kezka izan zituztelako. Hala ere, Guaiyek lehen asteetan izan zuen lankarga handiagoa, gero lortu dute egoera berrira egokitzea. Goienakoek asmatu zuten euskarri berrietara eta multimediara egokitzeke erresistentziak indargabetzen, ikastaroen bidez.

Pirinioetako komunikabideetako arduradun eta langileekin egindako elkarrizketetatik garbi atera da lanaren antolaketak buruhauste handiak sortzen dituela. Beren hedabiderako sortutako edukiak klik baten bidez partekatzeak ez die kezkarik sortzen, baina plataformak hori baino zerbait gehiago izan beharko duela diote, eta koordinazio bat beharko dela. Denek kalkulatzeko dute dedikazio zerbait ezarri beharko diotela proiektuari. Proiektua aurrera ateratzerakoan, oso sakonki aztertu beharko da antolaketa eta funtzionamendua, hori izango baita oinarrizko puntua.

Ikerketa-galderei erantzuna

- Zein da Pirinioetako euskal komunikabideen jarrera balizko komunikabide digital batu bat sortzeko?

Oro har, jarrera baikorra agertu dute, Xiberoko Botzak eta Xorroxin Irratiak salbu. Bi horiek ere ez daude aurka, eta ez dute erakutsi ez parte hartzeko asmorik, baina besteak baino uzkurrago daude. Besteak parte hartzeko gogoia erakutsi dute, betiere, beren lan-zama ez bada anitzez handiagoa eta ekonomikoki gastu berririk ez badu eskatzen.

Ez dute argi nolako plataforma izan beharko lukeen, baina, oro har, agregatzaile soil bat baino gehiago izan beharko lukeela diote, elkarrekin edukiak adostu behar liratekeela, baina komunikabide bakoitzak independentziari eutsi behar liokeela eta ez lan egin plataformaren zerbitzura. Lehentasuna ez luke plataformak izango.

Baliabideak aipatzean, azpimarratu behar da egoera larrian daudela denak. Diru-iturriak anitz murriztu zaizkie eta, ondorioz, baita lan-taldeak ere. Ez daukate denborarik halako plataforma bati eskaintzeko.

- Zertan lagun dezake horrelako plataforma batek Pirinioetako euskal komunitatean ehun soziala sortzen eta garatzen eta lurraldea kohesionatzen?

Gaur egun, Nafarroa iparraldearen eta Nafarroa Beherea eta Zuberoaren arteko harremanak garai batean baino urriagoak dira. Mendiaren alde batekoek eta bestekoek ez daukate elkarren berririk, edo oso gutxi. Hori ondorioztatu dute komunikabide gehienek. Elkarrekin horrelako proiektu baten eraikitzeak harremanak sakontzeko eta elkarren berri hobeki ezagutzeko bidea eskainiko lukeela uste dute.

Laburbilduz, Pirinioetako agerkari digitala sortzea ideia ona litzateke: oraingo komunikabideentzat mehatxu izateko ordez, aukera izan daitekeelako, Pirinioetako eskualdea kohesionatzeko tresna izan daitekeelako, existitzen ez den informazio-biltegi eta sorgune interesgarria izan daitekeelako eta euskararentzat mesedegarri izan daitekeelako. Baina garbi dago, parte-hartzea eta adostasuna lortu nahi badira, proiektua beherekin sortu behar dela, eta gogoeta-prozesuan denek parte hartu behar dutela. Halaber, bakoitzaren independentziari eutsi behar zaio, proiektua bideragarria izan dadin, eta berme ekonomikoak ziurtatu behar dira hasieratik.

Bibliografia

- Aiestaran, A. (2007): «Debabarreneko euskarazko komunikazio-sistema», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **62**, 81-97.
- , (2011): «Euskarazko tokian tokiko prentsaren eduki analisi konparatiboa: Debabarreneko azterketa», *Zer: Revista de estudios de comunicación = Komunikazio ikasketen aldizkaria*, 203-223.
- Alix, N.; Gros, M. eta Pierrot, H. (2008): *La télévision participative en milieu rural. Recherche-action sur quatre expérimentations: Pays Basque, Bretagne, plateau de Millevaches et Brenne*, Eguilles, 231. or.
- Amorena, A. (1989): «Los tratados de compascuidad entre Cize y Aezkoa: bases para la gestión futura de los espacios indivisos aezkoanos», in *Biocenoses d'altitude 3: Montagnes d'Europe*, 301-308.
- Arana, G. eta Zuberogoitia, A. (2012): «Goiena Komunikazio Taldea: tokiko talde multimedia baten kasu-azterketa», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*.
- Arizkun, A. (1992): «La economía de Baztán: Pasado y presente», *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria = Boletín de estudios del Bidasoa = Révue d'Études de la Bidassoa*, **10**, 261-274.
- Ballarini, L. (2012): «¿Por qué leer la prensa regional hoy en día?», *adComunica: revista científica de estrategias, tendencias e innovación en comunicación*, **4**, 99-117.

- Bidegain, E.; Zuberogoitia, A. eta Egaña, T. (2014): «Euskarazko tokiko hedabideen erradiografía», in *Komunikazio Eremuak - Espacios de Comunicación*, AE-IC, Bilbo, 452-465.
- DiStaso, M.W. (2012): «The Annual Earnings Press Release's Dual Role: An Examination of Relationships with Local and National Media Coverage and Reputation», *Journal of Public Relations Research*, **24(2)**, 123-143.
- Gabilondo, V. (2014): «La radio pública local en Andalucía: Una oportunidad para la participación ciudadana», *Historia y Comunicación Social*, **18(0)**, 257-270.
- Gaindegia (2013): *Euskal Herriko Pirinioak, problematika sozio-ekonomikoari hurbilpen lana*, 23. or.
- González Gorosarri, M. (2006): «Euskarazko tokiko hedabideen kalitatea», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **59**, 41-61.
- , (2011): *Albisteen kalitatea: 'Euskadi Irratia', 'Etb1' eta 'Euskaldunon Egunkaria'/'Berria' (Research on Basque Media's News Quality)*, doktorego-tesia, EHU, Leioa.
- Gorría, A.J. (2011): «La recuperación de las relaciones transfronterizas entre los valles de Ansó y Roncal como modelo de colaboración para el futuro», *Geographicalia*, **59**, 137-150.
- Gurun, U.G. eta Butler, A.W. (2012): «Don't Believe the Hype: Local Media Slant, Local Advertising, and Firm Value», *Journal of Finance*, **67(2)**, 561-597.
- Hoffman, L H. eta Eveland, W.P. (2010): «Assessing Causality in the Relationship Between Community Attachment and Local News Media Use», *Mass Communication and Society*, **13(2)**, 174-195.
- Idoate, F. (1968): «La comunidad del Valle de Roncal», in *Actas del Quinto Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos : Jaca-Pamplona, 1966*, 141-146.
- Iturri, J.M. (1995): Plan de desarrollo integral del valle de Roncal, *Agricultura: Revista agropecuaria*, **760**, 887-891.
- Juaristi, P. (2003): *Gizarte ikerketarako teknikak : teoria eta adibideak*, Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen Zerbitzua, Gasteiz.
- López-Mugartza Iriarte, J.K. (2008): «Euskera, language of the Pyrenees: the case of Ansó (Aragon) and Roncal (Navarre)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo: International journal of basque linguistics and philology*, **42(2)**, 303-336.
- Masip Masip, P. eta Micó Sanz, J.LI.; Ruiz Caballero, C.; González Molina, S.; Domingo Santamaría, D. eta Nogué Regás, A. (2011): «Integración de redacciones en los medios locales y comarcales catalanes», *Estudios sobre el Mensaje Periodístico*, **17**, 167-182.
- Murillo, S. eta Mena, L. (2006): *Detectives y camaleones: el grupo de discusión : una propuesta par la investigación cualitativa*, Talasa, Talasa.
- Nafarroako Gobernua (1989): *La mancomunidad del Valle del Roncal (1989)*.
- Olsson, C. eta Jacobsson, K. (2006): *The local newspaper, captured by the net? : A quantitive study about Swedish local newspapers and the competition faced from new media*.
- Perales Díaz, J.A. (1997): «Montañas, estados y etnicidad. El caso de los valles de Baztán y Baigorri», *Zainak. Cuadernos de Antropología-Etnografía*, **14**, 117-129.
- Rennhoff, A.D. eta Wilbur, K.C. (2012): «Local media ownership and media quality», *Information Economics and Policy*, **24(3-4)**, 231-242.
- Rucabado, I. (1999): «El Valle de Roncal», *Lex nova: La revista*, **9**, 22-23.
- Sanz Tolosana, E. (2009): «Modelos y representaciones sociales en torno al desarrollo del Pirineo navarro», *Lurralde: Investigación y espacio*, **32**, 93-118.

- Serpereau, A. (2006): *La télévision participative, vers un idéal type?* (Mémoire de master en Politiques et industries de la culture, de l'information, de la communication et des arts), Paris VIII Unibertsitatea.
- Simons, H. (2011): *Estudio de caso: teoría y práctica*, Morata, Madril.
- Solà Saña, S.L. (2012): *Els treballadors i els col·laboradors de les emissores de ràdio locals i comarcals de Catalunya. Definició i funcions de les figures professionals*, doktorego-tesia, Ramon Llull Unibertsitatea, FCCB - Comunicació, Bartzelona.
- Valles, M.S. (1997): *Técnicas cualitativas de investigación social: reflexión metodológica y práctica profesional*, Síntesis, Síntesis.
- Vilches, L. eta Río, O. del. (2011): *La investigación en comunicación: métodos y técnicas en la era digital*, Editorial Gedisa, Bartzelona.
- Zudaire, E. (1993): «Contingencias fronterizas Baztán-Bidarray», *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, **25(62)**, 204-218.

